

**VITORIA-GASTEIZKO UDALEAN EUSKARAREN
ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA
V. PLANGINTZALDIA (2013-2017)**

Gasteizen, 2013ko abenduaren 20an Gobernu Batzarrak onartua

Sarrera

1. Lege oinarriak
 2. Eragin esparrua
 3. Eragin epea
 4. Xede nagusia
 5. Helburu orokorrak
 6. Lan ildoak
 7. Hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko ekintzak
 - A) Helburuka
 - 7.1. Langileen hizkuntza gaitasuna gehitu
 - 7.2. Euskararen idatzizko erabilera gehitu
 - 7.3. Euskararen ahozko erabilera gehitu
 - 7.4. Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu
 - B) Lan ildoka
 - 7.5. Atal elebidunak eta mikroplanak sortu
 - 7.6. Hizkuntza eskakizuna eman duten langileek lan-jardunak euskaraz ere garatu
 - 7.7. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak sail guztietan ezarri eta erabili
 - 7.8. Euskara Zerbitzuaren eta sailen arteko lankidetzaren ugaritu
 - C) Laguntza-prozesuetan
 - 7.9. Ebaluazio prozesua hobetu
 - 7.10. Komunikazioa garatu
 8. Hizkuntza ofizialak Vitoria-Gasteizko Udalean erabiltzeko irizpideak
 - 8.1. Eragin eremua
 - 8.2. Zerbitzu-hizkuntzak, harreman-hizkuntzak eta lan-hizkuntzak
 - 8.3. Udalaren komunikazioak
 - 8.4. Etengabeko prestakuntza
 - 8.5. Langileen kontratazioa
 - 8.6. Aplikazio informatikoak
 - 8.7. Intranet, Internet, blogak eta gizarte sareak
 - 8.8. Itzulpenak egiteko eta eskatzeko irizpideak
 - 8.9. Kontratazio alorreko hizkuntza irizpideak
 - 8.10. Argitalpenak
 - 8.11. Hizkuntza-paisaia
 - 8.12. Irudi korporatiboa
 - 8.13. Jendaurreko ekitaldiak
 - 8.14. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak
 - 8.15. Diru-laguntzak eta hitzarmenak
 9. Laguntza-prozesuak eta baliabideak
 - 9.1. Ebaluazio egitura eta prozedura
 - 9.2. Komunikazio plana
 - 9.3. Giza eta diru baliabideak
- I. ERANSKINA. Definizioak eta lege-aipamenak

Sarrera

86/1997 Dekretuak arautzen du herri-administrazioetan euskara erabiltzeko prozesua. Dekretu horrek ezartzen du 19. atalean administrazioek bost urteko plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean onartu edo egokitu beharko dituztela beren normalizazio-planak eta plan horiek agertu behar dutela administrazio bakoitzaren hizkuntza politika, dekretuak ezartzen dizkion normalizazio helburuei erantzuteko. Eskakizun hori betetzera dator txosten hau. Bosgarren plangintzaldian —2013-2017— gaude gaur egun.

Gasteizko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko bi plan izan ditu: lehenak 2003-2007 urte tarteari eragin zion; bigarrenak, 2008-2012koari. Bigarren plangintzaldi horretako ebaluazio datuetatik abiatuta 2013-2017 urteen bitartean indarrean egongo den plana proposatuko dugu hemen.

Hala ere, ezin esan gabe utzi erabilera planik izan gabe ere lehen bi plangintzaldietan (1990-1997 eta 1998-2003) Gasteizko Udalak hainbat neurri hartu zituela bere langileen zati bat euskalduntzeko eta lanpostuen zerrendan jarri behar zituen derrigorrezko hizkuntza eskakizunak ezartzeko.

1. Lege oinarriak

Euskararen ofizialtasunak eta hizkuntza-normalizazioaren politikak Espainiako Konstituzioan, Euskal Herriko Autonomia Estatutuan eta Euskararen Erabilera Arautzeko Legean dute legezko oinarria.

Konstituzioak autonomia-erkidegoen berezko hizkuntzen ofizialtasuna aldarrikatzen du, eta aldarrikapen hori da, hain zuzen, hizkuntza batek goreneko aintzatespena lortzeko beharrezko duen oinarritzko tresna juridikoa.

Konstituzioak jasotako ofizialtasun-adierazpenari helduta, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak euskararen egoera juridikoaren oinarriak ezarri zituen bere seigarren artikuluan: euskara berezko hizkuntza izateaz gain, ofiziala ere bada —gastelaniarekin batera—; herritar guztiek dute hizkuntza biak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea, eta Autonomia Erkidegoko erakunde komunei dagozkie erabilera hori bermatzeko beharrezko eskumenak.

Euskararen Erabilera Arautzeko 1982ko Legeak marko juridiko orokorra ezartzeko saioa egin zuen, elkarbizitza elebidunari bide emateko eta hizkuntza plangintzako oinarriak ezartzeko asmoz. Euskarak izan behar duen goreneko ofizialtasuna indartzeaz gain, hizkuntzaren

normalizazioa ere du legeak helburu, hau da, euskara gizarte-funtzio guztiak betetzeko gauza izan dadin beharrezko prozesua abian jartzea.

Gerora, 1989an, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak administrazio elebiduna eraikitzeke hizkuntz plangintzarako oinarriak ezarri zituen. Horrela, funtzio publikoko sistema orokorrean hainbat neurri sartzen dira hizkuntza bietako edozeinetan jarduteko gai diren funtzionarioak lortzeko. Normalizazio-helburu horrekin oinarrizko tresna bi ezarri ziren: hizkuntza-eskakizuna (euskararen ezagutza-maila) eta derrigortasun-data (euskara noiz eta zein lanpostutan izango den ezinbesteko baldintza). 24/1989 Dekretuak nahitaez bete beharreko indizea arautu zuen, hots, derrigortasun-data izan beharreko langileen kopurua.

Apirilaren 15eko 86/1997 dekretuak erakunde publikoen normalizazio-prozesuak garatzen ditu, eta bere ezarpen-eremua administrazioek eurek barne-erabilera arautzeko egiten dituzten plangintzetara mugatzen du. Besteak beste, plan horiek garatu beharko dituzten egitura, gutxieneko edukiak eta arloak zehazten ditu.

2. Eragin esparrua

1997ko apirilaren 15eko dekretuak bigarren atalean dio zein esparrutan ezarriko den hizkuntza normalizatzeko prozesua eta, besteak beste, foru-administrazioak, toki-administrazioak eta haien erakunde autonomoak aipatzen ditu.

Beraz, hona gurean planean sartu behar direnak:

- (a) Arduradun politikoak
- (b) Udal sailak
 - Zuzendaritza Organoak
 - Alkatetza
 - Kultur Plangintzaren eta Jaien Zerbitzua
 - Hirigintza
 - Herritarren Segurtasuna
 - Ogasuna
 - Ekonomia Sustapena
 - Funtzio Publikoa
 - Informazioaren Teknologia
 - Gizarte Gaiak eta Adinekoak
 - Kontu Hartzailletza eta Ikuskaritza
 - Ingurumena eta Espazio Publikoa
 - Udal Eraikinetako Mantentze Saila
 - Herritarrentzako Zerbitzuak eta Kirolak

- Enplegua
 - Hiriaren Sustapena, Turismoa eta Erakundeen arteko harremanak
- (c) Sindikatuen ordezkariak
- (d) Erakunde autonomoak
- Ingurumen Gaietarako Ikastegia
 - Jose Uruñuela Dantza Eskola
 - Luis Aramburu Musika Eskola

Sozietate publikoei dagokienez, 1997ko apirilaren 15eko dekretuak honela ezartzen du laugarren xedapen gehigarrian: “Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahitaez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan”.

Bestetik, abenduaren 22ko 6/2003 Legeak eta hura garatu duten dekretuek hainbat hizkuntza-betebehar ezartzen dizkie bai ahozko informazioari eta bezeroarentzako arretari dagokienez bai idatzitako komunikazioei dagokienez.

Aipatutako lege-testuotan ezartzen direnak kontuan izanda, sozietate publiko horietako administrazio-kontseiluei dagokie helburuak jartzea eta helburuok bete daitezten beharrezko neurriak hartzea. Udaleko Euskara Zerbitzuak aholkularitza eskainiko eta ahal duen neurrian lagunduko die bi zeregin horietan.

- (e) Sozietate publikoak
- AMVISA
 - 21 ZABALGUNEA
 - GILSA
 - TUVISA

3. Eragin epea

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoaren eraginaldia 2013ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2017ko abenduaren 31n bukatuko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntzarako prozesuaren V. plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

4. Xede nagusia

Plangintzaldiaren xede nagusia da Gasteizko Udalean hizkuntzen berdintasunera jotzea, hau da, bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik berdintasun egiazkorantz joatea.

Euskarak, beraz, lan egiteko hizkuntza izan behar du batez ere herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuan eta herritarrekiko hartu-emanean. Herritarrei aitorturiko hizkuntza eskubideak erosotasunez baliatzeko aukera eman behar zaio herritarrari. Izan ere, kalitatezkoa izan nahi duen administrazio batek ehuneko ehunean bermatu beharko du zerbitzua hizkuntza ofizialetatik edozeinetan eskaintzeko moduan dagoela. Horretarako, arian-arian euskara ere laneko zeregin batzuetarako hizkuntza bilakatu beharra dago.

5. Helburu orokorrak

Lau dira erabilera plan honen helburu orokorrak:

1. Langileen hizkuntza gaitasuna gehitu
2. Euskararen idatzizko erabilera gehitu, sorkuntzari lehentasuna emanaz
3. Euskararen ahozko erabilera gehitu
4. Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu

6. Lan ildoak

Bestalde, helburuak lortzeko lau lan ildo hauek jorratuko ditugu:

1. Atal elebidunak eta mikroplanak sortu jendaurreko, gizarte-izaerako eta gazteriarekin harreman ugaria duten zerbitzuetan.
2. Hizkuntza eskakizuna eman duten langileek lan-jardunak euskaraz ere garatu. Hizkuntza eskakizuna lortua duten langile guztiek apurka-apurka gai izan beharko dute lanari dagozkion zenbait zeregin euskaraz ere gauzatzeko.
3. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak sail guztietan ezarri eta erabili. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak aurreko plangintzaldietan onartu izan dira. Oraingo plangintzaldian ere txertatu dira beharrezko ikusi diren hobekuntzak eta, ondoren, sail guztiek euren ohiko lan prozeduretan txerta ditzaten lan egin. Gainera, atal batzuk haratago ere joan daitezke eta irizpide egokiak ez ezik, irizpide eredugarriak zein diren hausnartu.
4. Euskara Zerbitzuaren eta sailen arteko lankidetzaren ugaritu, hizkuntzaren aldetik interesgarriak diren programak eta jarduerak identifikatzeko, horietan euskararen sustapena lantzeko irizpideak eta prozedurak finkatzeko.

7. Hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko ekintzak

A) Helburuka

7.1. Langileen hizkuntza gaitasuna gehitu

1. HELBURU OROKORRA: LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA GEHITU					
HELBURU ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)		Jomuga	
		Kop.	%	Kop.	%
1. Hizkuntza eskakizunen egiaztapena (HEE) bultzatu.	1. Derrigortasun indizea: derrigortasun data (DD) duten lanpostuak	766	%31,39	879	%36
	2. DD izanik, hizkuntza eskakizuna (HE) emango duten eta jabe diren langileak	487	%63,58	598	%68
	3. DD izanik, HEE duten eta jabe izan zein ez diren langileak	623	%81,33	765	%87
	4. Euskalduntze ikastaroetako matrikula kopurua urteko, batez beste	307	—	300	—
	5. Euskalduntze ikastaroetan izango den gainditze maila urteko batez beste	249	%81,1	243	%81
	6. Hizkuntza eskakizunen azterketara (IVAP) aurkeztuko diren langile kopurua urteko, batez beste	315	—	315	—
	7. Hizkuntza eskakizunen azterketetan gainditze tasa	19	%6	32	%10
2. Agintari politikoen euskararen ezagutza maila gehitu.	8. Politikarien artean B2 maila dutenak	11	%40	11	%40
	9. Plangintzaldian politikariek in egingo diren trebatze saioen kopurua	49	—	50	—
3. HEE dutenen mailari eutsi edo maila hori hobetu.	10. Planak eragindako langile kopurua plangintzaldian (aurrez aurreko trebakuntza eta zuzenketak)	426	%17,45	530	%21,72
	11. Euskara Zerbitzuko Intraneteko eta blogeko bisita kopurua urteko, batez beste	9.092	—	9.000	—

Normalizatzeko ekintzak:

1. Derrigortasun data gehiago jarri.
2. Langileak euskara eskoletara bidali.
3. Langileak hizkuntza eskakizunetako azterketara aurkeztu.
4. Arduradun politikoek trebakuntza programan parte hartu.

5. Trebatze saioen kopurua handitu. Erabilera planak guztira 530 langileri eragingo die.

7.2. Euskararen idatzizko erabilera gehitu

2. HELBURU OROKORRA: EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA GEHITU, SORKUNTZARI LEHENTASUNA EMANAZ					
HELBURU ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)		Jomuga	
4. Idatzizko kanpo harremanetan euskararen erabilera gehitu.	12. Erregistroan idatzizko harreman ofizialak ele bietan (irteerak) (%)	%22,85		%27	
	13. Jendaurreko ekitaldietan idatzizko erabilera harreran (%)	%46,50		%53	
	14. Jendaurreko ekitaldietan idatzizko erabilera jardunean (%)	%33,93		%37	
5. Idatzizko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu.	15. Harreman ofizialak euskaraz edo ele bietan (%)	%11		%18	
	16. Harreman ez ofizialak euskaraz edo ele bietan (%)	%10		%18	
		TESTUAK	HITZAK	TESTUAK	HITZAK
6. Idatzizko harremanetan euskarazko sortze lana gehitu (itzulpenaren beharra gutxitzeko).	17. Urtean zuzenduko diren testu eta hitz kopurua	1.021	390.000	1.170	400.000
	18. Euskara Zerbitzuak gazteleratik euskarara itzuliko dituen hitzak		1.962.187		1.900.00

Normalizatzeko ekintzak:

a) Erregistroa

- Dokumentuen trafiko gehien duten zortzi atalen segimendu sakonago bat egin: dokumentu estandarizatuenak eta bidalketa masiboak dagozkienak egokitu euskaraz ere egon daitezten.
- Gorabehera handiak dituzten ataletan azterketa kualitatiboa egin, gorabehera horien zergatiak argitzeko eta, behar izanez gero, neurri zuzentzaileak martxan jartzeko.

b) Jendaurreko ekitaldiak

- Sailei urtero eskatu jendaurreko ekitaldien gaineko datuak, batetik, adierazle honen bilakaera aztertzeko, eta bestetik, ikusteko hutsuneak non dauden, eta beharra ikusten den guztietan, hizkuntza-irizpideak lantzeko.
- Jendaurreko ekitaldien katalogoa osatu eta hizkuntza irizpideak ekitaldien ezaugarrietara egokitu bi parametro hauen arabera: bat, zerbitzuen programazioetako ekitaldiak; eta bi, ekitaldi sozial, politiko, administratibo eta instituzionalak. Esperientzia pilotoa abiatu multzo bakoitzeko ekitaldien

irizpideak egokiak diren ala ez erabakitzeko sail bitan. Aukerak programazioetako ekitaldiena probatzeko hauek izan daitezke: Ingurumen Osasunaren Zerbitzua, Herritarrentzako Zerbitzuen eta Kirolen Saila edo Kultur Plangintzaren eta Jaien Zerbitzua. Ekitaldi sozial, politiko, administratibo eta instituzionalena egiteko, berriz, beste hauek: Ogasun Saila eta Hirigintza Saila.

c) Euskara Zerbitzuak zuzendutako dokumentu eta orri kopurua

10. Trebakuntzaren barruan, indar gehiago eman ataletan ohitura aldaketa ahalbidetuko duten estrategien lanketari.

7.3. Euskararen ahozko erabilera gehitu

3. HELBURU OROKORRA: EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA GEHITU			
HELBURU ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
7. Ahozko kanpo harremanetan euskararen erabilera gehitu.	19. Euskarazko harrera telefonoan (%)	%38,64	%70
	20. Euskarazko elkarrizketa telefonoan (%)	%72,73	%77
	21. Jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera harreran (%)	%39,02	80
	22. Jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera jardunean (%)	%32,70	eutsi
	23. Euskarazko harrera leihatilan (%)	—	%70
	24. Kanpo harreman ofizialetan/formaletan euskararen erabilera (%)	—	%10
8. Lehenetsitako ataletan ahozko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu.	25. Euskaraz egingo diren bilerak (%)	%5	%7
	26. Barne harreman ez ofizialetan (informaletan) euskararen erabilera (%)	%10	%17

Normalizatzeko ekintzak:

a) Euskarazko jarduna telefonoan

11. Jendaurreko lanpostuen mapa osatu eta ondoren sailen barruko lekuz aldatzeko oinarrietan irizpideak jarri lanpostu horietan hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileak egon daitezzen.

12. Jendaurreko langileei hizkuntza ohiturak aldatzeko estrategiak lantzeko trebakuntza berezitua eskaini.

b) Jendaurreko ekitaldiak (ikusi 7.2.b epigrafea)

c) Ahozko barne harremanak atal elebidunetan

13. Trebakuntzaren barruan, indar gehiago eman ataletan ohitura aldaketa ahalbidetuko duten estrategien lanketari, harreman ez ofizialak ere aintzat hartuz.

7.4. Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu

4. HELBURU OROKORRA: IRUDI KORPORATIBOAN EUSKARAREN ERABILERA GEHITU			
HELBURU ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
9. Hizkuntza paisaian euskararen presentzia gehitu	27. Errotulazioak ele bietan (%)	%88	%90
	28. Iragarki oholetako oharrak ele bietan (%)	%68	%90
	29. Papeleria ele bietan (%)	%95	%95
	30. Tresneria ele bietan (%)	%15	%15
10. Argitalpenetan euskararen presentzia gehitu.	31. Ele bietan edo euskaraz argitaratuko diren liburuak (%)	%88,70	%90
	32. Ele bietan edo euskaraz argitaratuko diren horma-irudiak (%)	%92,90	%93
11. Interneten eta intraneten euskararen presentzia gehitu.	33. Webguneko edukiak ele bietan (%)	%65,29	%80
	34. Twitter kontuetan euskarazko txioak (%)	%34,05	%40
	35. Intraneteko edukiak ele bietan (%)	%84,45	%85
12. Baliabide informatikoetan euskararen presentzia gehitu.	36. Euskarazko aplikazioak ordenagailuetan (%)	%41,06	%50
	37. Intranetara langileak zenbat aldiz sartuko diren euskaraz (%)	%0,39	%5
	38. Euskarazko programen erabilera (%)	—	%5
13. Iragarpenetan, publizitatean eta kanpainetan euskararen presentzia gehitu.	39. Prentsa oharretan euskararen presentzia (%)	%100	%100
	40. Iragarkietan euskararen presentzia (%)	%100	%100
	41. Komunikazio kanpainetan euskararen presentzia (%)	%100	%100
	42. Megafonian euskararen presentzia(%)	%90	%90
	43. Entzungailuetan (ateak eta igogailuak, adibidez) euskararen presentzia (%)	—	%85
	44. Iragarki taulan euskararen presentzia (%)	%96,83	%97
	45. Youtuben jarriko diren bideoak euskaraz edo ele bietan (%)	%15,45	%100

Normalizatzeko ekintzak:

a) Hizkuntza paisaia

14. Errotuluen zuzentasuna bermatzeko protokoloak ezarri.
15. Gailu elektronikoen kontratazioak egiterakoan hizkuntza irizpideak txertatu.

b) Argitalpenak

16. Udal Agiritegiko datu-baseko erregistroa erabiliz, argitalpenen bilakaera urtero neurtu, sailen batean hizkuntza-irizpideekin lotutako gabeziaren bat antzemanaz gero, konpontzeko.
17. Oroit-idazkietan hizkuntza irizpideak betetzeko saioak egin sailetan.

c) Webgunea

18. Webguneko edukiak ele bietan jartzen direla zaintzeko aldian-aldian ikusketak egin.
19. Lanean jarraitu euskarazko edukien zuzentasuna zaintzen.

d) Twitter kontuak

20. Txioak urtero neurtu, gabeziaren bat antzemanaz gero, konpontzeko.

e) Intranet

21. Blogetan edukiak argitaratzeko hizkuntza-irizpideen segimendua egin.

f) Aplikazio informatikoak

22. Nabigatzailea euskaraz konfiguratzeke eta batik bat Thunderbird euskaraz konfiguratzeke kanpaina egin langileen artean.
23. Informazioaren Teknologiaren Sailarekin aztertu Windows-eko interfazea euskaraz jartzeko aukera.
24. Sortu beharreko softwarean zaindu hizkuntza irizpideak betetzen direla, baita kanpo kontratazioen bidez egiten denaren kasuan.

g) Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak

25. Komunikazio eta Protokolo Zerbitzuarekin aztertu hizkuntza irizpideen aplikazioa publizitatea eta kanpainak egiterakoan (ohiko euskarriez gain, sare sozialak, youtube eta abar).
26. Informazio Zerbitzuarekin landu herritarrentzako arreta bulego nagusiko iragarki taulan hizkuntza ofizial biak maila berean ager daitezen prozedurarik.
27. Udaleko Ikerketa Bulegoaren laguntzaz, irudiari dagokionez, aztertu Gasteizko Udalaren jardueretatik zeintzuek duten herritarrengan eraginik handiena.

B) Lan ildoka

7.5. Atal elebidunak eta mikroplanak sortu

1. LAN ILDOA: ATAL ELEBIDUNAK ETA MIKROPLANAK SORTU JENDAURREKO, GIZARTE-IZAERAKO ETA GAZTERIAREKIN HARREMAN UGARIA DUTEN ZERBITZUETAN			
NEURRI ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
14. Hizkuntza gaitasuna eta lanaren izaera aztertuta, atal elebidunak edo mikroplandunak izateko irizpideak betetzen dituztenak lehenetsi	46. Lehenetsitako atal kopurua eta trebakuntzaren gauzatze maila (%)	28 (%73,68) (38 zeuden planifikatuta)	58 (%100)
	47. Trebatze saioen kopurua plangintzaldian	1.624	3.345
	48. Trebakuntzako erabilera kopurua plangintzaldian	3.841	Eutsi

Normalizatzeko ekintzak:

- 28. Trebatze saioak ugaritu. Horretarako, batetik, urteko kudeaketa planean baliabideen eta beharren arteko oreka zaindu (aurrez aurre, zuzenketak, intraneta); eta bestetik, lanpostu bera duten eta sakabanatuta edo txandaka dauden langileentzat trebakuntza berezitua antolatu.
- 29. Intranet bidez egiten den trebakuntza aztertu eta erabaki zer eta nolako eduki diren interesgarrienak eta eraginkorrenak.

Hauetara 2013-2017ko lehentasunak:

Atal elebidunak

Guztira atal elebidunak 13 atal eta udaleko 5 haur eskolak izango dira:

SAILA / ATALA	IZAERA	LEHENTASUNA
<u>01. ALKATETZA</u>		
<i>Sindikoa-Herritarren Defendatzailearen Bulegoa (Atala)</i>	<i>gizartekoa</i>	2014
<i>Berdintasunerako Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2017
<u>01B KULTUR PLANGINTZAREN ETA JAIEN ZERBITZUA</u>		
<i>Montehermoso kulturunea</i>	<i>gizartekoa</i>	2013
<i>Antzoki Sarea</i>	<i>gizartekoa</i>	2016
<u>09. FUNTZIO PUBLIKOA</u>		
<i>Hautapen eta Garapen Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2016
<i>Segurtasun, Higiene eta Ergonomia Atala</i>	<i>orokorra</i>	2017
<u>18. HERRITARRENTZAKO ZERBITZUAK ETA KIROLAK</u>		

SAILA / ATALA	IZAERA	LEHENTASUNA
<i>Zuzendaritza</i>	<i>gizartekoa</i>	2014
<i>Hautzarorako Hezkuntza Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2013
<i>Hezkuntza Programen Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2013
<i>Zabalgana haur eskola</i>	<i>gizartekoa</i>	2017
<i>Sansomendi haur eskola</i>	<i>gizartekoa</i>	2017
<i>Lourdes Lejarreta haur eskola</i>	<i>gizartekoa</i>	2017
<i>Zaramaga haur eskola</i>	<i>Gizartekoa</i>	2017
<i>Hautzaro haur eskola</i>	<i>gizartekoa</i>	2013
<i>Herritarren Parte-hartzearen Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2017
<i>Gizarte Etxeen Zerbitzua</i>	<i>jendaurrekoa</i>	
<i>Zerbitziburua</i>	<i>gizartekoa</i>	2014
<i>Pilar-San Andres-Arriaga</i>	<i>jendaurrekoa</i>	2014
<i>Ibaiondo</i>	<i>jendaurrekoa</i>	2014
<i>Zabalganeko gizarte etxea</i>	<i>jendaurrekoa</i>	2017
<i>Salburuko gizarte etxea</i>	<i>jendaurrekoa</i>	2016

Salburuko eta Zabalganeko gizarte etxeak oraindik eraiki gabe daudenez, ezin dugu zehaztu atal elebidunak ala mikroplanak izango diren. Hala ere, komenigarria izango litzateke, izaera kontuan hartuta, biak atal elebidunak izatea.

Mikroplanak

Guztira 26 ataletan, zerbitzu bitan eta erakunde autonomo batean ezarriko dira:

SAILA / ATALA	IZAERA	LEHENTASUNA
<u>00. ZUZENDARITZA ORGANOAK</u>		
<i>Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Atala</i>	<i>orokorra</i>	2013
<u>01B KULTUR PLANGINTZAREN ETA JAIEN ZERBITZUA</u>		
<i>Folklore Akademia - Txistulari Banda</i>	<i>gizartekoa</i>	2015
<i>Gazteria Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2017
<i>Jaien Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2013
<u>02. HIRIGINTZA</u>		
<i>Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2013
<i>Mapagintza</i>	<i>gizartekoa</i>	2013
<i>Atal Juridikoa</i>	<i>orokorra</i>	2013
<i>Atal Teknikoa eta Ikuskaritzakoa</i>	<i>gizartekoa</i>	2013
<i>Administrazio Atala</i>	<i>jendaurrekoa</i>	2013
<u>03. HERRITARREN SEGURTASUNA</u>		
<i>Aparkaleku Zaintzaren Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2014
<i>Kudeaketa eta Baliabideen Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2014
<i>Azpieskala Operatiboko Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2015
<i>Udaltzaingoaren Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2014
<u>04. OGASUNA</u>		

SAILA / ATALA	IZAERA	LEHENTASUNA
<i>Administrazio Atala</i>	<i>jendurrekoa / orokorra</i>	2013
<u>22. HIRIAREN SUSTAPENA, TURISMOA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK</u>		
<i>Biltzar eta Turismo Zerbitzua</i>	<i>gizartekoa</i>	2017
<u>10. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK</u>		
<i>Aplikazioen Atala</i>	<i>orokorra</i>	2016
<i>Herritarrei Laguntzeko Atala</i>	<i>jendurrekoa</i>	2013
<i>Edukien Atala</i>	<i>orokorra</i>	2013
<u>11. GIZARTE GAIAK, ADINEKOAK</u>		
<i>Administrazio Atala</i>	<i>jendurrekoa</i>	2015
<i>Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Atala</i>	<i>jendurrekoa</i>	2015
<u>16. UDAL ERAIKINETAKO MANTENTZE SAILA</u>		
<i>Administrazio Atala</i>	<i>orokorra</i>	2014
<i>Garbiketa Orokorraren Atala (Garbiketa 1)</i>	<i>gizartekoa</i>	2015
<u>21. ENPLEGUA</u>		
<i>Administrazio Zerbitzua</i>	<i>jendurrekoa</i>	2016
<u>09. FUNTZIO PUBLIKOA</u>		
<i>Administrazio Atala</i>	<i>jendurrekoa</i>	2016
<u>18. HERRITARRENTZAKO ZERBITZUAK ETA KIROLAK</u>		
<i>Administrazio Atala</i>	<i>jendurrekoa</i>	2014
<i>Hezkuntza Koordinaziorako Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2013
<i>Gizarte Etxeen Zerbitzua</i>	<i>jendurrekoa</i>	
<i>Lakua-Abetxuku</i>	<i>jendurrekoa</i>	2014
<i>Aldabe-Landatxo-Landazuri</i>	<i>jendurrekoa</i>	2014
<i>Hegoalde-Ariznabarra</i>	<i>jendurrekoa</i>	2014
<i>Judimendia-Arana</i>	<i>jendurrekoa</i>	2014
<i>Mendizorrotzeko bulegoak</i>	<i>gizartekoa</i>	2015
<i>Gamarra</i>	<i>jendurrekoa</i>	2014
<i>LUIS ARAMBURU MUSIKA ESKOLA</i>	<i>gizartekoa</i>	2015

7.6. Hizkuntza eskakizuna eman duten langileek lan-jardunak euskaraz ere garatu

2. LAN ILDOA: HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EMAN DUTEN LANGILEEK LAN-JARDUNAK EUSKARAZ ERE GARATU			
NEURRI ZEHATZAK	Adierazlea	Egoera (2012)	Jomuga
15. Hizkuntza gaitasuna eta lanaren izaera aztertuta, DD duten langileei gutxienez lan-jardun bat euskaraz burutzeko helburua ezarri	49. DD duten eta planean sartzen diren langile kopurua, plangintzaldian	36	eutsi

Normalizatzeko ekintzak:

30. Banakako planak ugaritzeko estrategiak garatu, baliabideen eta lorpenen arteko oreka zaintzeko.

Guztira banakako planak 16 ataletan egingo dira, eta arduradun politikoei ere eragingo die:

SAILA / ATALA	IZAERA	LEHENTASUNA
<u>ARDURADUN POLITIKOAK</u>		2013
<u>01B KULTUR PLANGINTZAREN ETA JAIEN ZERBITZUA</u>		
<i>Administrazio eta Kudeaketa Atala</i>	<i>jendaurrekoa</i>	2013
<u>03. HERRITARREN SEGURTASUNA</u>		
<i>Zuzendaritza Nagusiaren Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2014
<i>Azpieskala Teknikoko Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2015
<i>Atal Teknikoa eta Prebentzioa</i>	<i>gizartekoa</i>	2015
<u>04. OGASUNA</u>		
<i>Zerga Kudeaketaren Atala</i>	<i>orokorra</i>	2015
<i>Zerga Ikuskaritzaren Atala</i>	<i>orokorra</i>	2015
<u>08. EKONOMIA SUSTAPENA</u>		
<i>Film Office Agentzia</i>	<i>gizartekoa</i>	2017
<i>Administrazio Atala</i>	<i>jendaurrekoa / gizartekoa</i>	2017
<i>Enpresen Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2017
<i>Merkataritza Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2017
<u>10. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK</u>		
<i>Administrazio Atala</i>	<i>jendaurrekoa / orokorra</i>	2016
<u>13. KONTU-HARTZAILETZA ETA IKUSKARITZA</u>		
<i>Kontu-hartzailetza eta Ikuskaritza Atala</i>	<i>orokorra</i>	2013
<u>15. INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA</u>		
<i>Hondakin Kudeaketaren Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2013
<i>Administrazio Atala</i>	<i>jendaurrekoa</i>	2013
<i>Hiriko Mantentze Atala</i>	<i>berezia</i>	2013
<u>21. ENPLEGUA</u>		
<i>Prestakuntza Atala</i>	<i>gizartekoa</i>	2016

7.7. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak sail guztietan ezarri eta erabili

3. LAN ILDOA: HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK SAIL GUZTIETAN ERABILI ETA EZARRI			
NEURRI ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
16. Kontratazioetan legea betetzen dela bermatu.	50. Hizkuntza irizpideak txertatuko dituzten kontratuak (%)	%21,56	%31
	51. Hizkuntza irizpideen jarraipen maila		%100
	52. Hizkuntza irizpideen betetze maila		%100
	53. Euskara Zerbitzuari eskatuko dioten txosten kopurua	35	35
17. Diru-laguntzei buruzko udal ordenantza betetzen dela bermatu.	54. Diru-laguntzetan hizkuntza irizpideen txertatze maila	%60	%75
	55. Hitzarmentan hizkuntza irizpideen txertatze maila	%70	%70
	56. Hitzarmentako hizkuntza irizpideen jarraipen maila		%100
	57. Hitzarmentako hizkuntza irizpideen betetze maila		%100

3. LAN ILDOA: HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK SAIL GUZTIETAN ERABILI ETA EZARRI			
NEURRI ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
18. Lan prestakuntzan euskarazko eskaintza handitu.	58. Euskaraz emango diren ikastaro kopurua	4 (%0,50)	10 (%1,25)

Normalizatzeko ekintzak:

a) Kontratazioak

31. Klausula ereduaren idazketan aurrera egin eta aplikazio informatikoan txertatu, Kontratazio Zerbitzu Nagusiarekin elkarlanean.
32. Saitetako teknikariek aldian-aldian lan-saioak antolatu, hiru helburu hauek lortzeko:
 - Baldintza teknikoaren agerian hizkuntza irizpideak zehazten trebatu.
 - Euskara Zerbitzuak eskaintzen duen aholkularitza zerbitzua ebaluatu.
 - Hizkuntza irizpideen betetze-mailaren jarraipena egiteko tresnak hobetu.
33. Gizarte etxetarako, eskoletarako eta gazteentzat kontratazio bidez egiten den eskaintzaren segimendua egin eta udal osorako eredu garri izan daitekeen praktika onen ibilbideak garatu.

b) Udalak ematen dituen diru-laguntzak

34. Kontratazio eremuan egiten diren urratsak eremu honetara estrapolatu eta zerbitzuekin elkarlanean jardun.
35. Kontu-hartzailetza eta Ikuskaritza Atalaren laguntzaz, diru-laguntzen eta hitzarmenen lagina zabaldu.

c) Etengabeko prestakuntza

36. Funtzio Publikoarekin irizpideak eta protokoloak egokitu eta horien jarraipena egin.
37. Euskara Zerbitzuak etengabeko prestakuntzaren barruko ikastaroen ohiko zabalkundeaz gain, zabalkunde berezitua egin langileen artean, eta materialen oniritzia eta hizkuntza kalitatea ziurtatu.

7.8. Euskara Zerbitzuaren eta sailen arteko lankidetzaren ugaritu

4. LAN ILDOA: EUSKARA ZERBITZUAREN ETA SAILEN ARTEKO LANKIDETZA UGARITU

NEURRI ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2013)	Jomuga
19. Udaleko sailetan erabilera planari buruz duten informazioa eta inplikazioa gehitu	59. Udaleko zuzendari eta zerbitzaburuak erabilera planari buruz duten jakintza maila		%100
	60. Euskara Zerbitzuaren eta sailen artean egingo diren bilera kopurua		85
	61. Lankidetzan egingo diren egitasmoen kopurua (prestakuntza, aplikazio informatikoak, kontratazioak, komunikazioa eta hitzarmenak)		5
	62. Lankidetzan arituta, Euskara Zerbitzuaren asebetetze maila		%100
	63. Lankidetzan arituta, sailen asebetetze maila batez beste		%100

Normalizatzeko ekintzak:

- 38. Sail guztietan erabilera planari buruzko komunikazioa bermatu, ohiko trebatze-saioez gain, zuzendaritza bileren bidez.
- 39. Hizkuntza irizpideen gaineko saio berezituak egin arloko teknikari eta arduradunekin.

C) Laguntza-prozesuetan

7.9. Ebaluazio prozesua hobetu

1. LAGUNTZA-PROZESUKO HELBURU ZEHATZA: EBALUAZIO PROZESUA HOBETU			
EKINTZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
20. Adierazle batera finkatu eta datu-bilketako tresnak hobetu	64. Berrikusi eta finkatuko diren adierazle kopurua	42	+/-5
	65. Berrikusi eta berrituko diren tresna kopurua	7	16

Hobetzeko ekintzak:

- 40. Ekintza planean urtero mailaka txertatu ebaluazioaren azterketa, bi helburu hauek lortzeko: bat, adierazleen batera finkatu; eta bi, datu-bilketarako tresnak hobetu.
- 41. Trebakuntzaren prozedurak eta ebaluazioa egiteko moduak sistematizatzen amaitu, trebakuntzako kasuistikaren gaineko gogoeta eginez, eta lorpenen eta gabezien ebaluazioa txertatuz.
- 42. Trebakuntzaren ebaluazioaren prozesuan banakako planen ebaluazioa ere txertatu eta sistematizatu.

7.10. Komunikazioa garatu

2. LAGUNTZA-PROZESUKO HELBURU ZEHATZA: KOMUNIKAZIOA GARATU			
Ekintzak	Adierazleak	Egoera (2013)	Jomuga
21. Komunikazioa plana diseinatu eta aurrera eramanean	66. Udal langileek erabilera planari buruz duten jakintza maila		%60
	67. Herritarrek erabilera planari buruz duten jakintza maila		%10
	68. Gauzatuko diren komunikazio ekimen kopurua		5

Ekintza:

43. Komunikazio plana diseinatu, dauden baliabideen arabera.

8. Hizkuntza ofizialak Vitoria-Gasteizko Udalean erabiltzeko irizpideak

8.1. Eragin eremua

Arau hauek bete eta irizpideei jarraitu behar diete Vitoria-Gasteizko Udaleko sail, zerbitzu eta erakunde autonomo guztiek.

Sailen eta zerbitzuen ardura izango da beren esparruan hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau eta irizpide hauek ezagutzea eta betetzea, Euskara Zerbitzua bidelagun izango dutelarik.

8.2. Zerbitzu-hizkuntzak, harreman-hizkuntzak eta lan-hizkuntzak

Euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntzak dira herritarrekin, harreman-hizkuntza beste administrazio batzuekin eta lan-hizkuntza udalean bertan.

Hori betetzeko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten udaleko langileei bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna aitortzen zaie; beraz, hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari, kasu bakoitzean lan-funtzioen arabera.

Euskara Zerbitzuak behar beste laguntza emango die hizkuntzaren erabilera aktiboaren alde egiten dutenei: langileek beren idazkiak bidali ahal izango dituzte Euskara Zerbitzura, bertako teknikariek gainbegira eta zuzendu ditzaten, idazki-eredu normalizatuak eska ditzakete, kontsultak egin... Laguntza eskeak barne postaz edo posta elektronikoz egingo dira, eta Euskara Zerbitzuak ahalik eta lasterren erantzungo du.

8.3. Udalaren komunikazioak

AHOZKO KOMUNIKAZIOAK

Irizpide orokorra: herritarrei eta erabiltzaileei egiten zaizkien komunikazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dira. Irizpide hori, besteak beste, honako komunikazio hauetan aplikatu beharko da:

- ✓ Megafoniaz emandako mezuak

- ✓ Igogailuetan, erantzungailu automatikoetan edota atea zabaltzerakoan ematen diren aurrez grabatutako mezuak
- ✓ Oro har, hartzaile jakinik ez duten mezu guztiak.

Mezu hauetan guztietan euskara-gaztelania hurrenkera erabiliko da.

a) Herritarrari zerbitzua ematen zaionean

Udalak euskaraz eta gaztelaniaz emango du zerbitzua, betiere kontuan harturik solaskidearen nahia, hizkuntza batean edo bestean aritzeko.

Beraz, dagokien hizkuntza gaitasuna duten langileek hizkuntza bietan aritzeko aukera emango diote herritarrari, eta horretarako hizkuntza biak erabiliko ditu hasierako agurrean, aurrez aurre harrera egitean zein telefonoa hartzean.

Euskaraz ez dakien langile bati herritarren batek euskaraz egiten badio edo euskaraz jardun nahi duela adierazten badio, langileak ez dio eskatuko gaztelaniaz jarduteko. Aitzitik, lankide elebidun batengana bideratuko du herritarra.

Herritarrak langile elebidunak zein diren errazago antzeman dezan, langileek euskaraz dakitela adierazteko bereizgarria izango dute bistan. Bereizgarri horiek Euskara Zerbitzuan eskatuko dira.

b) Administrazioen arteko harremanak

Aurreko atalean jasotakoez gain, ahalegina egingo du Gasteizko Udalak administrazioen arteko harremanak euskaraz izan daitezen, solaskidea elebiduna den kasuetan. Horretarako, oinarri izango da udalean une horretan indarrean dagoen erabilera-plana, bertan zehaztuko baitira baliabideak eta neurriak.

c) Udal barruko harremanak

Euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, arian-arian lan-hizkuntza izateko bideak jorratuko dira lehenetsita ez dauden ataletan.

Lehenetsitako ataletan, berriz, euskara lan-hizkuntza da eta atal horiek besteekin dituzten harremanetan euskararen erabilera sustatuko dute (telefonoz, lan-bilerak, ekitaldiak...).

IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

Irizpide orokorra: herritarrei eta erabiltzaileei egiten zaizkien komunikazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dira.

- ✓ Oro har, zutabe biko sistema erabiliko da: euskarazko testua ezkerrean agertuko da eta gaztelaniazkoa, eskuinean.
- ✓ Testua luzeegia izateagatik edo dituen ezaugarriengatik ezin bada zutabe bitan egin, bertsio bana egingo da hizkuntza bakoitzeko eta bertsio biak egongo dira jendaurrean eskura edo kontsultagarri.
- ✓ Maila bitan banatzen bada, euskarazkoa goialdean; eta gaztelaniazkoa, behean.

a) Udala dokumentu-igorlea denean

Udalak lehenengo komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz igorriko die herritarrei eta beste administrazioei. Horrela eginez gero, bide emango zaio hartzaileari hizkuntzaren hautua egiteko. Hortik aurrera, hartzailearen hizkuntza hautuaren arabera izango da.

Edozein modutan ere, Udalak euskara hutsean bidaliko ditu idazkiak kasu hauetan:

- ✓ Herritarrak edo beste administrazioak aurretik jakinarazi badu euskarazko komunikazioa lehenesten duela.
- ✓ Ohiko harremana euskara hutsezkoa bada; horrelakoetan, euskararen aldeko hautua egin dela ulertuko da.
- ✓ Komunikazioa lehenetsitako atalen artekoa bada.

b) Udalak komunikazioak jaso eta erantzun behar dituztenean

Orainsu arte administrazioan erabili ditugun testu gehienak gaztelaniaz sortu izan dira, eta gero euskarara itzuli. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko, udalak bermatuko du, ahal den neurrian, agiriak euskaraz eta gaztelaniaz sortuko direla, itzulpen-zerbitzuetara sistematikoki jo gabe.

Horrela, lehenetsitako ataletako langileak eta, horrelakoetan lan egiten ez badute ere, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten langileak ahaleginduko dira zabaldu beharreko mezua bi hizkuntzetan sortzen eta ematen. Irizpide hauen arabera jokatuko dute:

- ✓ Gaztelaniaz jasotako idatziari gaztelaniaz erantzungo dio langileak. Hala ere, erantzuna ele bietan izan daiteke lehenetsitako atal batetik erantzuten badu, edo, lehenetsi gabeko atala izanda ere, horretaz arduratuko den langileak gaitasun nahikoa badu.
- ✓ Ele bietan jasotako idatziari, oro har, ele bietan erantzungo dio langileak. Hala ere, euskara hautatzeko aukera emango dio solaskideari lehenetsitako atal batetik erantzuten badu edo, atala lehenetsi gabekoa izanda ere, horretaz arduratuko den langileak gaitasun nahikoa badu.
- ✓ Euskaraz jasotako idatziari euskaraz erantzungo zaio.

KOMUNIKAZIO TELEMATIKOAK

Komunikazio telematikoa eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da bide telematikoak sorrarazten dituen ahozko eta idatzizko mezu guztiak erabat argiak eta anbiguotasunik gabekoak izatea. Horretaz gain, honako irizpideei jarraitu beharko zaie:

- ✓ Tramitazio elektronikoa, informatikoa eta telematikoa herritarrak hautatzen duen hizkuntzan egingo da: euskaraz edo gaztelaniaz.
- ✓ Tramitazioaren azken jakinarazpena, ebazpen edo ziurtagiria denean, sistemak aukera emango dio herritarrari ele bietan jasotzeko.

8.4. Etengabeko prestakuntza

Prestakuntza bi hizkuntza ofizialetan emango zaie udal langileei ahal den guztietan. Prestakuntza arloan hizkuntzen arteko desoreka handia dagoenez, udalak neurriak hartuko ditu euskarazko eskaintza handitu, eta gero eta ikastaro gehiago eman daitezen euskaraz.

Prestakuntza Atalak prestakuntzaren gaineko planifikazio orokorra eta berezitua bidaliko dio Euskara Zerbitzuari, eta horrekin batera euskaraz emango diren ikastaroen proposamena ere, Euskara Zerbitzuak egokitzapenak eta ekarpenak egiteko. Udalak eskaintzen duen prestakuntzan hizkuntza ofizial biak izateak, langile euskaldunen eskubideak errespetatzea ez ezik, euskaldunen jakite-maila indartzea du helburu, euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izan dadin.

Aurrera begira ezinbestekoa da Funtzio Publikoarekin irizpideak eta protokoloak zehaztea eta horien jarraipena egitea. Funtzio Publikoaren laguntza behar-beharrezkoa da neurri hau aurrera eramateko. Urte hasieran Funtzio Publikoko zuzendariarekin, zerbitziburuekin eta langileen ordezkariarekin aztertu eta erabakiko da urte horretan zer ikastaro emango den euskaraz.

Bestalde, Euskara Zerbitzuak etengabeko prestakuntzaren barruko ikastaroen ohiko zabalkundeaz gain, zabalkunde berezitua egingo du langileen artean, eta materialen oniritzia eta hizkuntza kalitatea ziurtatuko du.

Horretaz gain, Euskara Zerbitzuak berak zenbait langile-talde zehatzi emango dien prestakuntza berezitua izan behar du etengabeko prestakuntzako gainerako ikastaroek izaten duten maila bera eta Funtzio Publikoaren aitortzea eta onespenua.

8.5. Langileen kontratazioa

Derrigortasun datak adierazten du lanpostu batean euskara noiztik aurrera eskatu behar den. Beraz, derrigortasun data hori kontuan hartuko da lanpostuak hornitzailekoan (ordezkapenak, zerbitzu-eginkizunak, lanpostu berriak eta programak).

8.6. Aplikazio informatikoak

Arian-arian bi hizkuntza ofizialetan egongo dira sailetako edo zerbitzuetako programa informatiko komertzial edo orokorrak eta sailek bereak sortzen dituzten programa edo tresna informatikoak.

8.7. Intranet, Internet, blogak eta gizarte sareak

Intranet eta Internet

Udalaren eskumenekoak diren Internet eta intranet sareetako edukiak euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira.

Argitaratzen duen atalaren ardura izango da edukiak bi hizkuntza ofizialetan egotea eta zuzentasuna eta egokitasuna zaintzea. Horretarako, edukien kudeatzaileek Euskara Zerbitzura bidal ditzakete edukiak web orriari argitaratu aurretik, testuaren zuzentasuna eta egokitasuna bermatzeko.

Internet sarearen bidez izapidetik egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.

Blogak

Edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratuko dira osorik. Horretaz gain, bi hizkuntzen kalitatea zainduko da. Iruzkinek bakoitzak nahi duen hizkuntzan egin daitezke, eta iruzkinaren hizkuntzari dagokion bertsioan argitaratuko dira. Horretaz gain, iruzkinetan interes orokorreko eztabaida edo gai bat sortzen bada hizkuntzetako batean, eduki berri bat sortuko da landutakoarekin beste hizkuntzan.

Gizarte-sareak

Udalaren gizarte sareetan edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz kontsultatu ahal izango dira beti. Administratzailea arduratuko da bermatzeaz jatorrizko edukiak bi hizkuntza ofizialetan era orekatuan argitaratzen direla.

Facebook eta Tuenti: edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratuko dira. Edukiak sartzekoan, euskarazko edukiari emango zaio lehentasuna. Lehenengo euskarazko edukia bistaratuko da, eta gero gaztelaniazkoa. Parte hartzen duten hizkuntzan erantzungo zaie erabiltzaileei. Argazki etiketa eta bestelakoetan iruzkinak bi hizkuntzetan egingo dira, lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz.

Twitter: edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratuko dira. Edukiak sartzekoan euskarazko edukiari emango zaio lehentasuna. Lehenengo euskarazko edukia bistaratuko da, eta gero gaztelaniazkoa. Beste txio bati erantzuteko, jatorrizko txioaren hizkuntza erabiliko da. Retuitei dagokienez, jatorrizko hizkuntza errespetatuko da, logikoa denez.

8.8. Itzulpenak egiteko eta eskatzeko irizpideak

Hizkuntza ofizial bietan argitaratu behar diren idazkiak itzultzeko betebeharra sail bakoitzaren erantzukizuna da, kasu bakoitzean. Era berean, egiten diren itzulpenei ahalik eta probetxu gehien ateratzea ere sailen ardura da.

Udalak kanpotik euskara hutsean jasotzen dituen idazki guztiak ez dira, besterik gabe, gaztelaniara itzuliko. Egiaztatzen bada administrazio-atal hartzailean agiria aztertu eta izapidetu behar duenak ez duela behar adinako hizkuntza gaitasunik agiria bere horretan ulertzeko, orduan edukiaren laburpena egingo dio lankide gaitu batek. Itzulpen Atalak ezinbestekoa denean bakarrik itzuliko ditu testu osoak.

Ohiz kanpoko itzulpenak (luzera, presa edota ezaugarri bereziak izateagatik) egin behar direnean, zerbitzuak edo sailak beharrezko aurreikuspen ekonomikoa egingo du. Izan ere, halakoetan kanpoko zerbitzuak kontratatu behar izaten dira Itzulpen Atalean giza baliabideak eta antolaketa mugatuak direlako.

Bestalde, udal sailek gogoan izan behar dituzte hizkuntza irizpideak Administrazio kontratazioen bitartez zerbitzua ematen denean. Horrelakoetan, esleipena jasoko duen kontratistaren hizkuntza-betebeharrak zehaztu behar dira plegu teknikoan. (Administrazio kontratazioei buruzko 8.9. epigrafea begiratu).

Lehenetsitako ataletako langileek eta, horrelakoetan lan egiten ez badute ere, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileek euren erabilera planetan zehaztuta izango

dute zeintzuk diren lehentasunezko komunikazioak, eta zeintzuk diren euskaraz sortu behar dituzten testuak Euskara Zerbitzuaren Itzulpen Atalera jo gabe. Edonola ere, zeregin horretan trebatzailearen laguntza izango dute.

Gainerako langileek honako irizpideei jarraitu beharko diete itzulpenak eskatzeko:

- Eskaera: dokumentu baten itzulpena eskatzerakoan, beharrezkoa den informazioa eman behar da, hala nola, nork eskatzen duen, zer lanpostu betetzen duen, zertarako den dokumentua, noizko behar den, lan osoa ala lan baten zatia den, gerora moldaketarik izango duen, lehenago euskaratu den, itzultzeko bidaltzen dena sortzeko beste testuren edo ereduren batean oinarrituko den...

Aurreko daturik ez da eman beharko maiztasun jakin batekin edo behin eta berriro errepikatzen diren eskaerekin: hots, gai zerrendak, bilera-deiak...

- Testuen formatua: itzulpena egitea eskatutako dokumentuak ezinbestez Word formatuan egon beharko dute, itzulpen-lana egiteko programa informatikoarekin arazorik ez izateko. Halaber, testuei edozein trataera egin zaielarik ere, Itzulpen Atalera garbi iritsi behar dira, hau da, aldaketa kontrola aktibatu gabe eta eremu automatiko, testu koadro, buleta, numerazio eta hipertestuko estekarik gabe.

- Itzulpena egiteko epea: betiere, itzulpen-lanek bere denbora beharko dutela aurreikusi behar du eskatzaileak; Itzulpen Atalean aurreikus daiteke lan baten itzulpena egiteko epea zein izan daitekeen.

- Oroit-idazkiak: oroit-idazkietako hizkuntza irizpide orokorra zein den kontuan hartuta, dagokion sailean bertan egingo den laburpena baino ez da itzuliko.

Interpretazio saioak: osoko bilkuretan, batzordeen bileretan eta abarretan hizlariak aurretik idatziz prestatutako testurik irakurri behar dutenean, interpretariei dena delako testua helaraziko diete 24 ordu lehenago.

8.9. Kontratazio alorreko hizkuntza irizpideak

Vitoria-Gasteizko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako kontratazio-organoek nahitaez sartu beharko dituzte euren kontratuetan honako elementu hauek:

- ✓ Hizkuntza-irizpide orokorren klausula berariazko klausula administratiboetako karatuletan:

“Kontratuaren esleipena jaso duen kontratistak eta azpikontratistak izan daitezkeen horiek kontratua gauzatzean begiratu beharko diote hizkuntza bien, euskararen eta gaztelaniaren, koofizialtasunari eta euren jarduera elebitasun irizpideen eta herritarren hizkuntza eskubideen menpe izango da, horrela zehazten baitute 10/1982 Legeak, Euskaren Erabilera Arautzeko Oinarrizkoa, Autonomia Estatutuak, 86/1997 Dekretuak, Euskadiko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, eta 2013ko Vitoria-Gasteizko Udalaren Planaren 8.9 atalak.

Kasu guztietan eta kontratu mota guztietan, esleipendunak edo azpikontratista izan daitezkeen horiek kontratuaren xedea gauzatzekoan egiten dituzten komunikazio orokor guztiek ele bietan egon behar dute.

Hurrengoak komunikazio orokorrak dira:

- Errotulazioa eta seinaleak
- Argibideak, publizitatea, iragarkiak, zerbitzuak eskaintzeko agiriak.
- Megafoniaz ematen diren komunikazioak
- Hartzaile jakinik gabeko gainerako komunikazio guztiak

Hizkuntza irizpide horiek bete ezean, lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren %1eko zigorra ezarriko da, BEZ barne. Hala ere, kontratazio-organoak, arrazoiak azalduta, huts egitea larria edo oso larria dela ebazten badu, zigorra %5era artekoa edo %10era artekoa izan ahalko da, hurrenez hurren.”

- ✓ Berariazko klausula kontratu motaren arabera. Klausula hori berariazko administrazio klausulen pleguko kontratistaren betebeharren atalean txerta daiteke.

Hizkuntza irizpide hauen segimendua Euskara Zerbitzuak eta Kontratazio Zerbitzuak batera egingo dute.

Berariazko klausula kontratu motaren arabera

Kontratu motaren arabera, berariazko klausula batek adieraziko du zein hizkuntza irizpide zehatz bete behar diren. Irizpideok Sail bakoitzeko zerbitzu teknikoek eta administrazio orokorreko teknikariak zehaztuko dituzte. Euskara Zerbitzuari aholkua eskatu ahal zaio kontratuaren ezaugarri teknikoak ezarri ostean eta eskaintza izapidetu baino lehen.

a) Obren kontratua

“Kontratua betetzeko hizkuntza betebeharrak. Esleipena jaso duen kontratistak eta azpikontratistak izan daitezkeen horiek obretan erakusgai dauden errotulazio

elementu guztietan gaztelania eta euskara erabili behar dituzte, elementu horiek barne eremuan zein kaleko informazio paneletan daudela.

Herritarren eskura jarriko diren agiri eta inprimaki guztiek ere, halakorik baldin badago, euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko dute.

Kontratatistak bete beharko ditu zuzendaritzak idatziz ematen dizkion aginduak, jarritako seinaleak osatzeko edo egokitzeko. Seinaleak jartzeak eragiten dituen gastuak kontratatistak ordaindu behar ditu.”

b) Herri lanen emakida: sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaz

“Esleipena jaso duen kontratatistak eta azpikontratatistak izan daitezkeen horiek obretan erakusgai dauden errotulazio elementu guztietan euskara eta gaztelania erabili behar dituzte, elementu horiek barne eremuan zein kaleko informazio paneletan daudela.

Herritarren eskura jarriko diren agiri eta inprimaki guztiek ere, halakorik baldin badago, ele bietan egon beharko dute.

Gauzatu beharreko jarduerak herritarrarekin zuzeneko harremana dakarrenean, ezinbestez herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan artatu behar dute. Aukera hori ez badago, izaera orokorreko komunikazioek ele bietan egon behar dute.”

c) Hornidura kontratua

Hornidura kontratuetan, Udalaren irudiari eragiten dioten neurrian, euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko dute produktuek kasu hauetan:

- ✓ Hizkuntza paisaiari eragiten badiote (errotulazioa, norabide-azalpenak).
- ✓ Errotulatuak izaten badira (laneko arropa).
- ✓ Berez testu idatzia nahiz ahozkoa baldin badaramate (inprimakiak, igogailuetako ahotsa).

Bestetik, produktuaren hartzailea herritarrak edo Udaleko langile guztiak edo ia guztiak badira, honako irizpideei jarraitu behar zaie:

- ✓ Udalak eskatuta diseinatzen diren produktuak, softwarea edo interfazea den kasuetan, ahozkoa zein ikusizkoa, euskaraz eta gaztelaniaz erabiltzeko moduan jarri behar dira.
- ✓ Gainerako (software) produktuetan, merkatuan baldin badaude euskaraz, horiek ere erabiltzaileak zein hizkuntzatan erabili nahi duen aukeratzeko moduan jarri behar dira.

- ✓ Catering eta antzekoek hornitzerakoan, zerbitzarien %50ek gutxienez izango du 1HE edo baliokidea.

d) Zerbitzu-kontratua, administrazio-kontratu berezia, kontratu pribatua

Kontratuaren xedearen azken emaitza ele bietan eman behar da beti honelakoetan:

- ✓ Aurreikusten denean, osorik edo zati bat, herritarrei zabalduko zaiela, edo
- ✓ hartzaileak haurrak edo gazteak direnean (hizkuntza alorrean gizarte eremu horiek babes berezia behar dutelako).

Kontratuaren xedearen azken emaitza egiteko, herritarrekin harreman zuzena dakarten jarduerak burutu behar badira, ezinbestez herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan artatu behar dute eta harreman horretako euskarri edo jardueretan (inkestak, galdetegiak, eztabaida taldeak, eta abar) euskararen erabilera bermatu behar dute.

e) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua

Gauzatu beharreko jarduerak erabiltzaileekin edo kontsumitzaileekin zuzeneko harremana dakarrenean, esleipena jaso duen enpresak edo azpikontratista izan daitezkeen horiek zerbitzu hori gaztelaniaz nahiz euskaraz emateko modua izan behar dute, eta ezinbestez erabiltzaileek edo kontsumitzaileek aukeratzen duten hizkuntzan artatu behar dituzte.

Herritarren hizkuntza eskubideak benetan betetzen direla bermatzeko, zerbitzua emateaz arduratuko den lantaldean behar den euskara gaitasuna duten langile nahikoa izango ditu kontratistak, zerbitzua euskaraz ere egoki emateko.

f) Kontratu txikia

Legez administrazio-plegua idatzi behar ez denez, kontratu txikien kasuan, kontuan hartu behar da kontratuaren xedea eta horretarako plegu teknikoan esleipena jaso duen kontratistaren hizkuntza betebeharrak agertu behar dira.

8.10. Argitalpenak

Udalak argitaratzen duen hartzaile jakinik gabeko idazki oro ele bietan egongo da, hala nola, udalaren aisialdiko programazioak eta agendak, informazio-liburuxkak, esku-orriak, ekitaldi publikoen zabalkunde orriak.

Hartzaileak gazteak edo haurrak direnean, gutxienez aurreko irizpidea bete beharko da eta bestelako formulak bilatuko dira Euskara Zerbitzuarekin batera, gizarte-esparru honetan euskaren erabilera sustatzearen.

Euskara sustatzea helburu duten aldizkariak euskara hutsean argitaratuko dira.

Maiztasun jakinik gabeko argitalpenak luze-konplexuak direnean eta hartzaileak ezagunak direnean, argitalpena egin behar duen sailak edo zerbitzuak txostena eskatuko dio Euskara Zerbitzuari, aplikatu beharreko hizkuntza-irizpideak azaldu ditzan. Txostena emateko honakoak izango ditu izango ditu kontuan Euskara Zerbitzuak:

- ✓ Gaia eta izaera.
- ✓ Argitalpenaren asmoa eta zein premiari erantzuten dion.
- ✓ Argitalpena doan banatuko den ala salgai jartzekoa den.
- ✓ Zein irakurle motarentzat den.
- ✓ Zenbat ale argitaratuko den eta izango duen zabalkundea.
- ✓ Aurrekontua.
- ✓ Txostena eskatu duen sailak argitalpen gaietan izan duen hizkuntza politika, irizpideak poliki-poliki betetzen joateko.
- ✓ Egile-lana den ala ez.

Ikuskizunak, hitzaldiak edo antzezlanak iragartzean, izenburua jatorrizko hizkuntzan mantentzea aholkatzen da. Baina, ikuskizunari edo dena delakoari buruzko laburpena, komentarioa edo sinopsia egiten bada, hizkuntza bietan joan beharko du.

Biltzarretako, sinposioetako, eta gainerako zientzia- eta kultura-ekitaldietako argitalpenak gauzatu diren hizkuntza edo hizkuntzetan egingo dira. Egoki ikusiz gero, euskarazko laburpenak egingo dira.

Sail eta zerbitzuetako oroit-idazkiek gutxienez euskarazko laburpena izango dute. Euskara Zerbitzuak behar beste laguntza emango du eta langileek beren idazkiak Euskara Zerbitzura bidali ahal izango dituzte zuzentzeko.

8.11. Hizkuntza-paisaia

Instalazioetan jendearen aurrean ikusgai egoten diren informazio-euskarriek osatzen dute hizkuntza-paisaia: errotuluak, norabidezkoak, eraikinetako plakak zein bulegoak eta aretoak izendatzekoak, leihatiletakoak, kafe-makinak, edukiontzi higienikoak, fitxatzeko erlojuak, aldi baterako jartzen diren informazio-oharrak, edota itxarongeletan egoten diren aldizkari eta liburuak. Bada informazio horiek guztiek ele bietan egon beharko dute beti.

Hizkuntza ofizialen kokapenari dagokionez, testu idatzietan bitan banatzen bada, euskarazko testua goialdean eta gaztelaniazkoa, berriz, behean. Aitzitik, zutabe biko sistema erabiliz gero, euskarazkoa ezkerrean eta gaztelaniazkoa, eskuinean jarri behar da.

Seinalitikak eta errotuluek aipamen berezia behar dute; izan ere, hizkuntza paisaia finkoa osatzen duten neurrian, erabat zuzen egon daitezten neurriak hartu beharko dira. Hori betetze aldera, errotuluak eskatzen dituzten eraikinetako arduradunek testuen zuzenketa eskatu beharko liokete Euskara Zerbitzuari. Kalean dauden seinaleei dagokienez, protokoloa ezarri behar da Irudi Korporatiboaren Zerbitzuarekin eta Bide Publikoarekin, dena delako seinalea jarri aurretik, Euskara Zerbitzuari horren irudia edo argazkia bidaliko dio oniritzia eman diezaion. Prozedura bera erabiliko da zuzenak ez diren seinaleak aldatzeko.

Azkenik, arian-arian kontratazioaren bidez neurriak hartuko dira gailu elektronikoetan, hala nola, faxetan, fotokopiagailuetan, inprimagailuetan dauden mezuak euskaraz ere egon daitezten.

8.12. Irudi korporatiboa

Erakundearen irudi korporatiboa osatzen duen elementu oro ele bietan egongo da.

Udalaren organo, egitarau, proiektu edo ekintza guztiek bi hizkuntza ofizialetan izango dute izen ofizialaren deskribapena. Izen ofizialak euskaraz emateko Euskara Zerbitzuaren proposamena eta onespena beharko da.

Testu idatzia bitan banatzen bada, euskarazko testua goialdean eta gaztelaniazkoa, berriz, behean. Aitzitik, zutabe biko sistema erabiliz gero, euskarazkoa ezkerrean eta gaztelaniazkoa, eskuinean.

8.13. Jendaurreko ekitaldiak

Udaleko sailek edo zerbitzu guztiek antolatzen dituzten prentsaurreko, ekintza instituzional, hitzaldi, mahai-inguru, jardunaldi tekniko, ikastaro, erakusketa eta abarren antolamendu-fasean hizkuntzak nola erabiliko diren zehaztu beharko da Euskara Zerbitzuarekin batera, alderdi hauek kontuan izanda: ekitaldiaren helburuak, gaiak, eragin soziala, hartzaile edo entzulegaiak, hizlari edo irakasleak eta erabili edo banatuko den materiala.

Ekitaldiaren izaerak aldi bereko interpretazioa eskatzen duenean, ekitaldia antolatzen duen sailaren edo zerbitzuaren ardura izango da giza baliabideez hornitzea eta interpretazio lana egiteko behar diren elementu materialez egoki horniturik dagoen areto bat hautatzea. Horretarako, erreserba ekonomikoa egin beharko du sailak edo zerbitzuak.

8.14. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak

Bi hizkuntzetan egingo dira sail eta zerbitzuetako iragarpen ofizialak eta gainerako publizitate-ekintzak; hala ere, hartzailearen eta hedabidearen ezaugarriak kontuan izanda, posible izango da euskara hutsean egitea.

Kanpainen edukiak eta leloak asmatzerakoan kontuan hartuko dira bi hizkuntza ofizialen ezaugarriak; hau da, hizkuntza bietan ondo funtzionatu behar dute. Horretarako, kontratazioetan baldintza gisa eskatuko da kanpainaren mezua bi hizkuntzetan sortua izatea eta euskarazko komunikazioa zaintzeko idazki edo mezu jatorrak, zuzenak, ulergarriak eta egokiak izatea.

8.15. Diru-laguntzak eta hitzarmenak

Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzan (ALHAO, 5 zk. 2006/1/13) esaten denari jarraitu beharko zaio:

“6. artikulua- Onuradunak eta erakunde laguntzaileak. Kontzeptua eta betebeharrak.

(...)

l) Beren jarduerari zabalkundea emateko herritar guztiei zuzendutako liburuxkak, kartelak nahiz beste edozein euskarri baliatzen duten onuradunek bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute hori. Gisa berean, diru-laguntzaren xedea jarduera ireki bat delarik, edo ekitaldi publiko baten antolakuntza, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute horren zabalkundea onuradunek.”

“11. artikulua- Diru-laguntzak arautzeko oinarriak:

(...)

b) Esparru guztietan, diruz lagunduko diren jarduerak eta onuradunek antolatuko dituzten ekitaldi eta ekintzak nori zuzenduak izango diren aintzat harturik, hizkuntza-irizpide jakin batzuk finkatu beharko dira oinarrietan, bi hizkuntza ofizialak modu egokian erabiliko direla bermatzeko. Irizpide horiek zehazteko txostena eskatuko zaio Euskara Zerbitzuari.”

Diru-laguntzak kudeatzeko eskumena duten organoek neurriak hartuko dituzte onuradunek xedatutako hizkuntza betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko.

11.b) artikuluan Euskara Zerbitzuaren txostena aipatzen da. Deialdiak eta hitzarmenak bideratzen dituztenen lana errazteko, kontuan hartu behar diren irizpide zenbait eskaintzen ditugu honako lerroetan.

Orokorrak

Diru-laguntzak emateko arauetan eta laguntzen zenbatekoa finkatzeko irizpideen artean hizkuntza ofizialen erabilera kontuan izango da, diru-laguntzaren objektuan hizkuntzaren erabilerak eragin handia duenean, eta, oro har, 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Legeak euskararen erabilera arautzeari buruzkoak, 26. eta 27. artikuluetan xedatutako alorretan.

Beren jarduerari zabalkundea emateko herritar guztiei zuzendutako liburuxkak, kartelak, iragarkiak nahiz beste edozein euskarri baliatzen duten onuradunek bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute hori. Gisa berean, diru-laguntzaren xedea jarduera ireki bat delarik, edo ekitaldi publiko baten antolakuntza, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute horren zabalkundea onuradunek. Megafoniaz ematen diren mezuetan bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, eta euskara gaztelania hurrenkera izango da.

Udalak diruz lagundutako ekitaldi edo jardueretan euskararen erabilera bermatu beharko da jardueran edota ekitaldian bertan, gutxienez aurkezpenetan eta agurretan ahoz nahiz megafoniaz. Diru-laguntza deialdietako balorazio-irizpideetan puntu osagarriak esleituko zaizkie euskara sustatzen duten jarduera edo ekitaldiei. Nolanahi ere, ekitaldia ele bietan egiten bada, euskaraz hasiko da.

Udalak diruz lagundutako argitalpenetan euskararen erabilera bermatu beharko da.

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek neurriak hartuko dituzte onuradunek xedatutako hizkuntza betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialak zuzentasunez erabiltzen direla zaintzeko. Hori dela eta, onuradunek diru-laguntza kudeatzeko eskumena duen organoari egiaztatu beharko diote, batetik, jardueraren zabalkundea egiteko euskarriak bi hizkuntza ofizialetan direla, eta bestetik, hizkuntza ofizialak nola kudeatu diren.

Hartzaileak gazteak edo haurrak direnean, irizpide orokorrez gainera, ondoko atala ere hartu beharko da kontuan: euskararen erabilera sustatzearen, Udalak diruz lagundutako ekitaldi edo jardueretan onuradunek parte-hartzaileei euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteko aukera bermatu beharko diete. Hezkuntza zentroetan burutu beharreko jarduerak direnean, eskatzaileek bi hizkuntza ofizialetan egiteko aukera bermatu beharko die zentroeiei. Nolanahi ere, euskara gaztelania hurrenkera izango da.

9. Laguntza-prozesuak eta baliabideak

9.1. Ebaluazio egitura eta prozedura

Erabilera planaren jarraipena egitea Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeari dagokio.

Ekintza plana urtez urte

- Urtero zer langile sartu eta zer komunikazio landu behar den berrikusiko da.
- Abian jarritako ekintzak berrikusi eta egokitu edo beste ekintza batzuk proposatuko dira.
- Urtarrilean Euskara Zerbitzuak, Gasteizko Udalaren eta bere erakunde autonomoen eremuan, aurreko urteko ebaluazio txostena eta urteko ekintza plana idatzi, eta Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordean aurkeztuko du, baita sailez sail eta sindikatuei ere.

Ebaluazio horrek kontuan hartuko ditu alderdi kualitatiboak, urteko planaren indarguneak eta zer hobetuak arakatu eta jasoko dira esparruka, eta kuantitatiboak, urtero neurtuko diren adierazleen zenbakizko datuak. Horren arabera urtez urte beharrezko egokitzapenak eta dagozkion ekintza zuzentzaileak erabakiko dira.

Plangintzaldiaren ebaluazioa

2017. urtean plangintzaldi osoaren (2013-2017) ebaluazioa egingo da. Plangintzaldiko datu kualitatiboak eta kuantitatiboak bilduko dira eta helburuen betetze-maila neurtuko da. Hurrengo faseari ekiteko balioko digu.

2013-2017 plangintzaldiko adierazleak

1. HELBURU OROKORRA: LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA GEHITU					
HELBURU ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)		Jomuga	
		Kop.	%	Kop.	%
1. Hizkuntza eskakizunen egiaztapena (HEE) bultzatu.	1. Derrigortasun indizea: derrigortasun data (DD) duten lanpostuak	766	%31,39	879	%36
	2. DD izanik, hizkuntza eskakizuna (HE) emango duten eta jabe diren langileak	487	%63,58	598	%68
	3. DD izanik, HEE duten eta jabe izan zein ez	623	%81,33	765	%87

1. HELBURU OROKORRA: LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA GEHITU					
HELBURU ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)		Jomuga	
		Kop.	%	Kop.	%
	diren langileak				
	4. Euskalduntze ikastaroetako matrikula kopurua urteko, batez beste	307	—	300	—
	5. Euskalduntze ikastaroetan izandako gainditze maila urteko, batez beste	249	%81,1	243	%81
	6. Hizkuntza eskakizunen azterketara (IVAP) aurkeztuko diren langile kopurua urteko batez beste	240	—	240	—
	7. Hizkuntza eskakizunen azterketetan gainditze tasa	—	—	eutsi	—
2. Agintari politikoen euskararen ezagutza maila gehitu.	8. Politikarien artean B2 maila dutenak	11	%40	11	%40
	9. Plangintzaldian politikariek in egingo diren trebatze saioen kopurua	49	—	50	—
3. HEE dutenen mailari eutsi edo maila hori hobetu.	10. Planak eragindako langile kopurua plangintzaldian (aurrez aurreko trebakuntza eta zuzenketak)	426	%17,45	530	%21,72
	11. Euskara Zerbitzuko Intraneteko eta blogeko bisita kopurua urteko, batez bestekoa	9.092	—	9.000	—

2. HELBURU OROKORRA: EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA GEHITU, SORKUNTZARI LEHENTASUNA EMANAZ					
HELBURU ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)		Jomuga	
4. Idatzizko kanpo harremanetan euskararen erabilera gehitu.	12. Erregistroan idatzizko harreman ofizialak ele bietan (irteerak) (%)	%22,85		%27	
	13. Jendaurreko ekitaldietan idatzizko erabilera harreran (%)	%46,50		%53	
	14. Jendaurreko ekitaldietan idatzizko erabilera jardunean (%)	%33,93		%37	
5. Idatzizko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu.	15. Harreman ofizialak euskaraz edo ele bietan (%)	%11		%18	
	16. Harreman ez ofizialak euskaraz edo ele bietan (%)	%10		%18	
		TESTUAK	HITZAK	TESTUAK	HITZAK
6. Idatzizko harremanetan euskarazko sortze lana gehitu (itzulpenaren beharra gutxitzeko).	17. Urtean zuzenduko diren testu eta hitz kopurua	1.021	390.000	1.170	400.000
	18. Euskara Zerbitzuak gazteleratik euskarara itzuliko dituen hitzak		1.962.187		

3. HELBURU OROKORRA: EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA GEHITU			
HELBURU ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
7. Ahozko kanpo harremanetan euskararen erabilera gehitu.	19. Euskarazko harrera telefonoan (%)	%38,64	%70
	20. Euskarazko elkarrizketa telefonoan (%)	%72,73	%77
	21. Jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera harreran (%)	%39,02	80
	22. Jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera jardunean (%)	%32,70	eutsi
	23. Euskarazko harrera leihatilan (%)	—	%70
	24. Kanpo harreman ofizialetan/formaletan euskararen erabilera (%)	—	%10
8. Lehenetsitako ataletan ahozko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu.	25. Euskaraz egingo diren bilerak (%)	%5	%7
	26. Barne harreman ez ofizialetan (informaletan) euskararen erabilera (%)	%10	%17

4. HELBURU OROKORRA: IRUDI KORPORATIBOAN EUSKARAREN ERABILERA GEHITU			
HELBURU ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
9. Hizkuntza paisaian euskararen presentzia gehitu	27. Errotulazioak ele bietan (%)	%88	%90
	28. Iragarki oholetako oharrak ele bietan (%)	%68	590
	29. Papeleria ele bietan (%)	%95	%95
	30. Tresneria ele bietan (%)	%15	%15
10. Argitalpenetan euskararen presentzia gehitu.	31. Ele bietan edo euskaraz argitaratutako liburuak (%)	%88,70	%90
	32. Ele bietan edo euskaraz argitaratuko horma-irudiak (%)	%92,90	%93
11. Interneten eta intraneten euskararen presentzia gehitu.	33. Webguneko edukiak ele bietan (%)	%65,29	%80
	34. Twitter kontuetan euskarazko txioak (%)	%34,05	%40
	35. Intraneteko edukiak ele bietan (%)	%84,45	%85
12. Baliabide informatikoetan euskararen presentzia gehitu.	36. Euskarazko aplikazioak ordenagailuetan (%)	%41,06	%50
	37. Intranetera langileak zenbat aldiz sartu diren euskaraz (%)	%0,39	%5
	38. Euskarazko programen erabilera (%)	—	%5
13. Iragarpenetan, publizitatean eta kanpainetan euskararen presentzia gehitu.	39. Prentsa oharretan euskararen presentzia (%)	%100	%100
	40. Iragarkietan euskararen presentzia (%)	%100	%100
	41. Komunikazio kanpainetan euskararen presentzia (%)	%100	%100
	42. Megafonian euskararen presentzia (%)	%90	%90
	43. Entzungailuetan (ateak eta igogailuak, adibidez) euskararen presentzia (%)	—	%85
	44. Iragarki taulan euskararen presentzia (%)	%96,83	%97
	45. Youtuben jarritako bideoak euskaraz edo ele bietan (%)	%15,45 (17)	%100

1. LAN ILDOA: ATAL ELEBIDUNAK ETA MIKROPLANAK SORTU JENDAURREKO, GIZARTE-IZAERAKO ETA GAZTERIAREKIN HARREMAN UGARIA DUTEN ZERBITZUETAN			
NEURRI ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
14. Hizkuntza gaitasuna eta lanaren izaera aztertuta, atal elebidunak edo mikroplandunak izateko irizpideak betetzen dituztenak lehenetsi	46. Lehenetsitako atal kopurua eta trebakuntzaren gauzatze maila (%)	28 (%73,68) (38 zeuden planifikatuta)	58 (%100)
	47. Trebatze saioen kopurua plangintzaldian	1.624	3.345
	48. Trebakuntzako erabilera kopurua plangintzaldian	3.841	Eutsi

2. LAN ILDOA: HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EMAN DUTEN LANGILEEK LAN-JARDUNAK EUSKARAZ ERE GARATU			
NEURRI ZEHATZAK	Adierazlea	Egoera (2012)	Jomuga
15. Hizkuntza gaitasuna eta lanaren izaera aztertuta, DD duten langileei gutxienez lan-jardun bat euskaraz burutzeko helburua ezarri	49. DD duten eta planean sartzen diren langile kopurua, plangintzaldian	36	eutsi

3. LAN ILDOA: HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK SAIL GUZTIETAN ERABILI ETA EZARRI			
NEURRI ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
16. Kontratazioetan legea betetzen dela bermatu.	50. Hizkuntza irizpideak txertatuko dituzten kontratuak (%)	%21,56	%31
	51. Hizkuntza irizpideen jarraipen maila		%100
	52. Hizkuntza irizpideen betetze maila		%100
	53. Euskara Zerbitzuari eskatuko dioten txosten kopurua	35	35
17. Diru-laguntzei buruzko udal ordenantza betetzen dela bermatu.	54. Diru-laguntzetan hizkuntza irizpideen txertatze maila	%60	%75
	55. Hitzarmenetan hizkuntza irizpideen txertatze maila	%70	%70
	56. Hitzarmenetako hizkuntza irizpideen jarraipen maila		%100
	57. Hitzarmenetako hizkuntza irizpideen betetze maila		%100
18. Lan prestakuntzan euskarazko eskaintza handitu.	58. Euskaraz emango diren ikastaro kopurua	4 (%0,50)	10 (%1,25)

4. LAN ILDOA: EUSKARA ZERBITZUAREN ETA SAIL EN ARTEKO LANKIDETZA UGARITU			
NEURRI ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2013)	Jomuga

4. LAN ILDOA: EUSKARA ZERBITZUAREN ETA SAILEN ARTEKO LANKIDETZA UGARITU			
NEURRI ZEHATZAK	Adierazleak	Egoera (2013)	Jomuga
19. Udaleko sailetan erabilera planari buruz duten informazioa eta inplikazioa gehitu	59. Udaleko zuzendari eta zerbitzaburuek erabilera planari buruz duten jakintza maila		%100
	60. Euskara Zerbitzuaren eta sailen artean egingo diren bilera kopurua		85
	61. Lankidetzan egingo diren egitasmoen kopurua (prestakuntza, aplikazio informatikoak, kontratazioak, komunikazioa eta hitzarmenak)		5
	62. Lankidetzan arituta, Euskara Zerbitzuaren asebetetze maila		%100
	63. Lankidetzan arituta, sailen asebetetze maila batez beste		%100

1. LAGUNTZA-PROZESUKO HELBURU ZEHATZA: EBALUAZIO PROZESUA HOBETU			
EKINTZAK	Adierazleak	Egoera (2012)	Jomuga
20. Adierazle batera finkatu eta datu-bilketako tresnak hobetu	64. Berrikusi eta finkatuko diren adierazle kopurua	42	+/-5
	65. Berrikusi eta berrituko diren tresna kopurua	7	16

2. LAGUNTZA-PROZESUKO HELBURU ZEHATZA: KOMUNIKAZIOA GARATU			
EKINTZAK	Adierazleak	Egoera (2013)	Jomuga
21. Komunikazioa plana diseinatu eta aurrera eramanean	66. Udal langileek erabilera planari buruz duten jakintza maila		%60
	67. Herritarrek erabilera planari buruz duten jakintza maila		%10
	68. Gauzatuko diren komunikazio ekimen kopurua		5

3. GIZA ETA DIRU BALIABIDEAK		
Adierazleak	Egoera (2013)	Jomuga
69. Erabilera Planean inbertituko diren giza baliabideak urtero	5 lanaldi oso + 2 x 2/3	7 lanaldi oso
70. Erabilera Planean inbertituko diren diru baliabideak urteko	0	10.000

9.2. Komunikazioa

Komunikazioaren asmoak:

- Langileak aktibatzea, lehenengo hitza euskaraz, hizkuntza ofizial biak tartekatzen dituzten formula mistoak erabiliz.
- Herritarren eskaria handitzea

Mezua:

Euskara eskaintzen dizut, zuk nahi baduzu. (jauzi egin, hau da, langile gehienen jarrera da bestek eskatzen badit, ni prest nago emateko; kontua izango litzateke langileek aurrea hartzea, zain egon gabe besteri aukera eskaintzea).

Publikoen arabera:

- Herritarrari: eroso sentiarazi nahi zaitugu
- Langile euskaldunei: aberatsa zara, elebiduna zara (ez galdu aberastasun hori?)
- Langile erdaldunei: kalitateko arreta emateko, euskara nahitaez txertatu behar. Lagundu zeregin horretan!

Euskarriak:

- Sentsibilizazio kanpaina Udaleko Komunikazio Atalarekin batera.
- Urtero Funtzio Publikoak, Euskara Zerbitzuaren laguntzaz, formazio ekitaldi bat edo jardunaldi bat antolatu langileentzat.
- Urtero, urtarrilean, sailei aurreko urteko ebaluazioa aurkezten zaienean komunikazioa landu (feedbacka).
- Intranet eta Interneten informatu, baina baita feedbacka lortzeko bideak ere jorratu.
- Esku-orria banatu langile guztiei.
- Herritarrei begira: udalarekin izapideren bat euskaraz egitea sustatu -kanpaina orokorra edo saioak euskaltegietan, mintzalagunean-.
- Ibilbide luzeko esperientzia ludikoagoetan (gizarte etxeetako eskaintzako batzuk, esate baterako) esperientzia pilotu bat abiatu erabilera suspertzekoa.

9.3. Giza eta diru baliabideak

Giza baliabideak: 3 normalizazio teknikari (2 lanaldi oso eta 2/3) + 4 itzultzaile (3 lanaldi oso eta 2/3).

Diru baliabideak: 10.000 euro urtero prestakuntzarako eta komunikazio kanpainetarako.

3. GIZA ETA DIRU BALIABIDEAK		
Adierazleak	Egoera (2013)	Jomuga
71. Erabilera Planean inbertitutako giza baliabideak urtero	5 lanaldi oso + 2 x 2/3	7 lanaldi oso
72. Erabilera Planean inbertitutako diru baliabideak urteko	0	10.000